



AITONAK UTZI ZIDANA

Glòria Granell · Quim Torres

Itzultzailea: Iraitz Urkulo

HAUR LITERATURA

ISBN: **978-84-19319-00-5**

ORRIALDEAK: **32**

FORMATOA: **275 x 200 mm**

PREZIOA: **18,00 €**

5 urtetik aurrera

Aitona zaharra zen. Zahar-zaharra. Eta udan hondartzara eramaten zuen Glòria. Eta kremaz igurzten zion bizkarra. Eta ortzi mugan nabigatzen zuten itsasontziak zenbatzen zituzten. Eta arrainek bezala igeri egiten zuten. Eta abestiak kantatzen zituzten. Eta hareazko gaztelu ederrak egiten zituzten. Baina egun batean... KATAKRAK! Aitonak indarrak galdu zituen, eta pixkanaka-pixkanaka gauza gehiago galtzen joan zen. Baina galtzen zuen gauza bakoitzeko aurkikuntza berri bat egiten zuten, eta aitonak honela esaten zuen: «Datorrena datorrela, ez galdu sekula irribarrea. Inoiz ez!». Orduan irribarre zabala erakusten zuen eta, soilik lau hortz zituenez, denak barrez jartzen zituen.

Nabarmentzekoak:

- Zahartzaroa xamurtasunez kontatzen da, aitona-biloba bikotearen harremanaren bitartez, eta senide edadetu baten heriotza biziaren zikloaren baitan lantzen da.
- Arkatzez egindako ilustrazioak koloretsuak eta ñabarduraz beteak dira, zentzumenen gozagarri.
- Istorioa eguneroko elementuz jantzia da, irakurlearekin lotura bilatzeko, eta testuak errepikak eta irri eginarazten duten pasarteak ditu.



GLÒRIA GRANELL BARBERÀ

(El Morell, Tarragona, 1987). Sakontasunaren eta sotila eta ikusezina denaren zalea. Zineman eta Ikus-entzunezkoetan graduatu ondoren, Ateneu Barcelonès-ko Idazketa Eskolan, Beckett Aretoan, Narratiba Terapeutikoko Eskolan eta Zentzumenen Antzerkia konpainian jarraitu zituen ikasketak. Istorioekiko eta haien ahalmen eraldatzailearekiko pasioak International School of Storytelling-en ahozko narrazioa esploratzera eraman zuen. Idazteaz gain, yoga eskolak ematen ditu, basoan zeharreko bainuetan gidari-lanak egiten ditu eta erretiroak antolatzen ditu natura betean, artearen eta idazketaren bidez sormena pizteko asmoz. *Aitonak utzi zidana* da argitaratu duen haurrentzako lehen ipuina, eta dagoeneko lau hizkuntzatan irakur daiteke.

QUIM TORRES

(Castellserà, Lleida, 1978). Marrazkien bidez istorioak kontatzeko artearen zale amorratua da. Bartzelonan bizi da 2011tik, eta bertako EINA arte eskolan egin zuen Ilustrazioko graduondokoa. Ilustratzaile gisa etxeko zein atzerriko hainbat argitaletxetan lan egin du. Gaur egun, liburuak ilustratzeaz gain, tailerrak ematen ditu, marrazkigintza norbere burua ezagutzeko tresnatzat erabiliz.



+XO!

txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus

